

1990-X-26

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1990eko urriaren 26an egin dute euskaltzain osoek, goizeko hamar eta erdietan, hileroko euren batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, L. Villasante eta P. Zabaleta euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea eta R. Badiola Argitarapen eragilea, urgazleak.

X. Diharce eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute.

Iraileko batzar-agiria onartu da.

B. Oihartzabal euskaltzain berriari lehen batzarre honetara ongietorria eman dio euskaltzainburuak.

Letra larrien erabilera

Maiuskulen erabilpena arautzeko xedea luzatuz doa otsaileko batzarrean euskaltzainen iritzia jasotzeko batzordeñoa izendatu zenetik. Bi dira, nagusiki, aurkeztutako erantzunak: L. Villasantek hilabeteen izenei buruz bidalitako azalpena, eta P. Salaburuk mamitutako proposamen zabalagoa.

L. Villasante euskararen tradizioan oinarritzen da hilabeteen izenak maiusku- lekin idatzi behar direla esateko. Mitxelena zenaren lekukotasuna aipu du, joan- mendeetako idazleen joera ere gogoratu. Akademiak beti izan direla tradizioari atxikiak, dio, nahiz eta erdal Akademiak *Esbozo* delakoan, hilabete, urte eta aste-ko egunen izenei dagokienez letra xeheak erabiltzeko gomendioa ere aitortzen duen.

Txomin Peillen jaunak Mitxelena zenaren zenbait gutun aurkeztu du, hilabeteen izenak gehien bat minuskulekin idazten dituela adierazteko. Lehen gutuna da, hain zuzen ere, 1957an letra larriaz emandako bakarra.

J.A. Arana Martijak Euskaltzaindiaren aginduz jasotako irizpideen berri eman du gero. Gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan nabarmentzen diren joerez ardu-

ratzen da nagusiki, Euskalerriko argitalpenen lekukotasun gutxi azaltzen duelarik, tamalez.

Euskararen tradizioa esatean, gaztelera eta frantses eskolen heziketaz ari gara, euskaldunok ez dugularik oraintxe arte eskolarik izan eta, ongi ala gaizki, orain ere euskarak bide bat egina du. J.M. Satrustegik dio, ez ote den beranduegi atzera itzultzeko, joera orokorraren aurkako erabakia hartzeak duen arriskua azpimarratuz.

Eskuarterko gaiaren ataltxo bat besterik ez dela ikusirik gehiegi luzatu den eztabaida hau, P. Salaburuk aspaldi aurkeztutako proposamena punduz-pundu aztertzea erabaki da. P. Zabaletaren ustez, hala ere, luzeegia da aztergaia eta araua era laburrean aipatzea gomendatzen du, zirriborroaren eredia emanaz. Idazleen zailtasunak argitzeko egokiagoa dirudiela adibideez apaindutako testu zabalak, erantzun zaio, eta besterik gabe P. Salabururen izkribua aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

Letra larrien erabilpenari dagokion zatirik haundiena ikusi ondoren, beste batzarre batean bukatzeko utzi da azken partea eta letra xehen eztabaida.

BEZ edo IVA zergaren testua

BEZ eta gaztelaniaz IVA delako zergaren euskal testuen azalpena egin du R. Badiolak. Hego Euskalerrian zergak ordaintzeko erabili ohi diren inprimakien testuak bateraturik argitaratzea da lanaren helburua. Erakunde ofizialeetako itzulzaile eta arduradunek elkarrekin egina dute euskaratzeko lana, azken batzarrean Euskaltzaindiak izendatutako batzordeñoak eman diolarik azken begiratua. Zenbait hitz eta esaera azpimarratu dira, ontzat eman delarik zerrenda. Egileen lan astun eta eskergaitza aitortu da

Bonaparteren mendeurrena

Datorren urteko larrazkenean egitekoa den kongresua prestatzeko izendatua den batzordea Bilbon bildu zen urriaren hamaikan. Bertan ibilitako gaien berri eman du J.L. Lizundiak. Euskaltzaindiaren XI. Biltzarra izan daiteke, Iruñean egindako hamargarrenaren jarraipena, alegia.

Akademia gaietan, orain arte aipatutako egitaraua Atlasari gehiegi loturik ikusten du G. Aurrekoetxeak, eta hizkuntz atlasgintzaren metodologian sakondu beharra aipatu du, munduan zehar egiten ari diren hizkuntz atlasak kontutan izanik. Dialektologiaren ekarpena linguistika lanetarako, eta ahozko herri kultura ere ezin dira baztertu.

Dialektologia munduan maisu diren irakasle zenbait gonbida daitezke.

Egun horien inguruan beste ekintza batzu ere mamituko dira, hala nola Bonaparteren liburu erakusketa eta berak euskal gaiez egindako lan guziak bilduma batean argitaratzea. Ikurratz edo postako seiluren bat plazaratzea ere aipatu da.

Deituren idazkera

Udal Euskara Teknikarien Sareak (UETS) Onomastika batzordeburuari bidalitako gutunaren berri eman da. Deitura edo abizenak euskal grafiaz idaztearen aldeko kanpaina egin nahi dutela, aditzera ematen dute. Onomastika batzordekoekin bilera egin dute horietako zenbait ordezkariak azken urriaren 19an Gasteizen. A. Irigoyenek zenbait eragozpen eta zailtasun teknikoren berri eman zien. E. Knörr jaunak. E. Mugica Justizia ministrariarekin Madrilen izandako elkarrizketak aipatu zituen: Merkatalgoko hitzarmenetan zer ondore izan ditzakeen ere azaldu zaie. Nola nahi ere, aldatzekotan, ortografia egokitzea gauza bat da, eta besterik abizena trukatu edo bere esanahia itzultzea. Egin gogo zuten kanpaina baztertzea erabaki dute oraingoz.

Nafarroako irriatiak

Azken egun hauetan Nafarroako Gobernuak FMko zazpi irratiren baimenak banatu ditu, euskal irrati biren eskariak baztertuz. Euskara ahotsik gabe utzi dute, beraz, Nafarroan. Aurrez izandako harremanetan erdi-hitzemanik zegoela euskal irrati batentzat baimena, dio P. Zabaletak, baina azken erabakiak ezeztatu du itxaropena. Jokabide horren aurkako iragarpen ordaindu bat komunikabideetara igortzea erabaki du batzarreak.

Eskuartekoak

M. Larramendiren mendeurrena ospatzeko onartua duen egitarauaren berri eman du gutun baten bidez Andoaingo Udalak.

Basauriko Udalak sortu nahi duen euskararen teknikari lanpostua hornitzeko epaimahairako R. Badiola izandakua izan da, eta P. Uribarri ordezko. Foruko Udalak herriaren izenaz eta honen deklinabideaz egindako galderei, dagokion batzordeak erantzungo die.

Georgiako Linguistika Institutuaren zuzendari den B. Jobernadze jaunaren gutuna aurkeztu du E. Knörrek, zeinetan Euskaltzaindiarekin hartueman estua-goak burutzen hasteko xedea azaltzen bait du hizkuntzalari georgiarrak.

Lizarrako III. Onomastika Jardunaldien ondorioak jakinerazi ditu batzordeburuak. Onomastika arloan egiten ari diren era guztitako lanen informazio zehatza biltzearen beharra azpimarratu da.

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III liburukiaren berri eman da, argitaratze-ko prest dagoela adieraziz. Aurkibidea banatu zaie batzartuei.

1991ko Aurrekontuen txostena aurkeztu eta banatu dute Ekonomia ardura-dunek. Bertan azaltzen da atalez-atal Euskaltzaindiak eskuartean dituen lan guzieren diru kostua.

Arauen arabera, datorren abenduko batzarrerako iragarri du euskaltzain buruak Zuzendaritzako karguen berritzea. Laguntzaile eta ohorezkoen izendapenak ere ikusiko direla, aditzera eman du denbora berean.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

NAFARROAKO GOBERNUARI ETA JENDARTEKO IRITZIARI

Iruñean, urriak 26, 1990

Euskaltzaindiak, egun, Urriak 26, egin duen ohizko oro-batzarrean, Nafarroako Foru Komunitateko FM-irratibidearen zazpi baimen eman berri direla jakin du. Haietatik batek ere ez du euskarazko programagintza arrunt eta egokirik.

Gertakari honen aurrean, Erret Akademia honek, zeinen sortzeko xedeen artean "hizkuntzaren eskubideak zaintzea" da eta, gainera, Foru Administrazioaren legezko aholkulari ofiziala da, kemenez eta azkarki adierazi nahi du bere protesta eta ezadostasuna. Onarrezina da Komunitate honen hizkuntzatariko bata berriz ere baztertu izana, euskararen eta nafar hiritarren, euskaldunen zein erdaldunen, eskubidea zapalduz.

Are larriagoa da hau, ezen hemendik aitzina arituko diratekeen hogeai baimendun irratietarik bat ere ezin da euskalduntzat jo eta, bestalde, horrelakorik ez da ofizialki elebidun diren Erkidegoetan gertatzen.

Irrati-baimen hauen egozte-irizpideetan espreski aipatzen zen euskara kontutan hartuko zela. Harrigarria da lehiaketa publiko batean horren justizia urriz erabakitzea.

Anitzetan erraten bada ere euskara gizarte osoaren ondarea dela, berriro ere ikusten ditugu hitz horiek egitez eta obrez gezurtatuak.

Bidegabekeria hau Foru Administrazioak berehala zuzenduko duela espero du Euskaltzaindiak, euskarari leku bat, ez bigarren mailakoa ez lotsakorra, Erki-dego honetako irratigintzan aitortuz.

AL GOBIERNO Y A LA OPINION PUBLICA DE NAVARRA

Pamplona, 26 de octubre de 1990

La Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia—, en su sesión plenaria celebrada con fecha 26 de Octubre, ha tenido conocimiento de la concesión de siete licencias de radiodifusión por F.M. en la Comunidad Foral de Navarra, de las cuales ninguna tiene programación ordinaria ni adecuada en lengua vasca.

Ante este hecho, esta Real Academia, entre cuyos fines estatutarios figura el de “velar por los derechos de la lengua” y ostenta además la condición legalmente establecida de asesora oficial de la Administración Foral, desea hacer pública su protesta y desacuerdo con la mayor energía. Es inaceptable que se haya postergado una vez más una de las lenguas oficiales de esta Comunidad, conculcando el derecho del euskera y de todos los ciudadanos navarros, sean o no vascoparlantes.

El hecho resulta agravado por cuanto ninguna de las veinte licencias que se prevén en vigor a partir de la fecha puedan ser consideradas de lengua vasca. Y además, porque en ninguna de las otras comunidades oficialmente bilingües ocurre nada semejante.

Asombra que en un concurso público, en cuyos criterios de adjudicación se mencionaba precisamente que se tomaría en consideración la lengua vasca, se haya resuelto de una forma tan poco equitativa.

Una vez más, asistimos a una práctica que contradice las palabras referentes al euskera, como patrimonio común de la sociedad.

Euskaltzaindia confía que la Administración Foral corrija de modo inmediato esta arbitrariedad, reconociendo a la lengua vasca un espacio no subalterno y vigorizante en la radiofonía de esta Comunidad.

2. BATZAR ARRUNTA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1990.eko urriaren 26an, arratsaldeko 4etan, bildu dira, goizeko bilkuran egondakoez gain, J.A. Arkotxa, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. Garmendia Larrañaga, M.^a P. Lasarte, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Lehendabizi J. Haritschelhar euskaltzainburuak Beñat Oihartzabal euskaltzain hautatu berriari ongi etorria ematen dio.

Jarraian, J.M. Satrustegi idazkariak goizeko bileraren berri ematen du, laborbildurik gai hauek azpimarra daitezkeelarik: 1. Letra larri edo maiuskulen erabilpena erabakitzeko gomendio arauak aztertu eta onartu dira, zerrendaren heren bat hurrengo bilkuran bukatzeko utziz; 2. BEZ/IVA zergaren inprimaki testua aztertzeko izendatu zen batzordeñoaren lana, orohar, ontzat eman da; J. Nafarroako Gobernuak FM irratientzako baimen banaketa dela eta euskal irratienaganako jokabide ukatzailea salatzea erabaki da; 4. Basauriko Udalak sortu duen euskararen teknikaria hautatzeko epaimahaikidea izendatu da.

Dagozkien batzordeen azalpena. Luis Luziano Bonaparte printzearen mendeurrena dela eta izendatuta dagoen batzordearen bilkuren berri eman da. Datoren urteko urriaren 21etik 26ra, Dialektologiari buruz Nazioarteko Biltzar bat antolatuko da, mendeurren horren inguruan zenbait erakusketa eta argitarapen ere izango direlarik.

Onomastika batzordearen kontu ere eman da, bereziki deiturak euskal grafian idaztearen arazoaz eta Lizarran oraintsu egindako III. Onomastika Jardunaldien ondorioez.

Gramatika Batzordeak, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III* liburukia argitaratzeko prest dagoela adierazi du.

“Noiz hil zen Axular?” izeneko txostena irakurri du E. Knörr euskaltzainak. Gai honi buruz zenbait xehetasun interesgarri ematen ditu, jarraian elkarrizketa bat sortzen delarik.

“EIZIE nazioarteko itzultzaileen federazioan” tituludun txostena irakurtzen du Josu Zabaleta euskal itzultzaile elkarte horretako arduradunak. Yugoslaviako hiriburuan oraintsu izandako kongresoaren berri zehatzak ematen ditu, besteak beste, euskarari buruzkoak, zeren eta gure hizkuntzaren presentzia nabarmendu bai zen.

Eta besterik gabe, amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Jose M. Satrustegi